


BALEIKE

200 pta.

63. zenb.



- **Kiroldegiko tarifen auzia udaletxera heldu da**

- **Bertsolaritza: Joanito Dorronsorori omenaldia urtarrila hasieran**

- **Igor Beristain: "Oraindik ez dakit errepidean jarraituko dudan"**

- **Zumaia Realaren posterrean**

1999ko urtekaria
eta 2000ko
egutegia opari

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

DISEINUA

+ ZERBITZUA

+ KALITATEA

Amertce
FOTO

25. URTEURRENA

Markogintza
Erreportajeak
Estudio argazkiak
Errebelatuak
Kamarak et abar

profesionalak gara
etor zaitez!

ERRIBERA KALEA, 6
TEL. 943 86 17 07
ZUMAIA

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza
Aintzane del Pilar

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Eneko Dorronsoro
Ane Osa

Joseba Ossa

J.L. Romatet

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Gorka Zabaleta
J.L. Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor,
Fototeka,
Aran Santamaria
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Arkaitz Suarez

Argazkiak

Baleike
Egunkaria

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza
(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Gabonetako propaganda eta hauteskundeak



Josu Waliño

Duela zazpi hilabete atari honetan bertan idatzi nuen artikulua-
ren gaira bueltatzea erabaki dut. Orduan, hauteskundeak zetoze-
la eta Udaletxetik jasotzen ari ginen informazio pila goraipatu nizuen. Inoiz ez bezala, hautes-
kundeen aurreko hiru hilabete horietan aldizkari, informazio orri eta antzerako sistemen
bidez gure Udalak azken lau urteotan egindako lan guztiak, eta gure herriaren onerako
egiten ari zen lan eta edertze guztien berri jaso genuen etengabe. Ez dago oso azkarra izan
beharrik hauteskundeei begirako propaganda hutsa zela konturatzeko, baina nik
badaezpada zalantza-marjina bat utzi nien. Zergatik ez? Banuen nire esperantzakoa:
agian behingoz Udalak egiten zuen guztiaren berri eman nahi zion herriari, gero guk,
herritar xeheok, gure ondorioak atera genitzan. Marjina horren ondorioz, hilabete batzuen
ondoren Udalak bide berdinetik jarraituz gero zorionduko nuela esan nuen. Zazpi
hilabeteko marjina utzi det, baina nahikoa izan ziren bi egun: hauteskundeak amaitu
orduko, amaitu zen Udalaren informazio grina. Orain nire buzoian Eroski eta antzekoen
gabonetako propaganda besterik ez dut jasotzen. Udaletxera ere karrotxoa hartuta joan
beharko ote gara?


Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udal




Kiroldegiko tarifen auzia Udaletxera heldu da

Herritarren artean hain zabaldua izan den gaia, Lubaki Kiroldegian Kirolzer enpresak Udalaren plenoaren baimenarekin onartutako tarifenak alegia, aurrerapauso bat izan du. Hiru asteburu jarraian herritarren sinadurak jasotzen egon ondoren, gai hau Udalaren Zerbitzu Batzordera pasa da.

Kiroldegiko tarifik murriztea eskatzen duen Plataformak, bai egunkarietara bidalitako gutunen bidez eta baita ere buzoneo bidez beren aldarrikapenak ezagutarazi ondoren, azaroaren azken hiru asteburutan zumaiaarren sinadurak jasotzera atera ziren kalera. Herriko bi leku estrategikoetan jarri ziren Plataformakoak, Alai auzategiko Eroskiren aurrean, eta Erribera kalean. Guztira, 2010 sinadura jaso dituzte hiru asteburu hauetan, Zumaiaiko herritarren laurden bat.

Plataformakoak ez ziren sinadurak jasotzearekin gelditu, bitartean herriko alderdi politikoei hizketan ere aritu baiziren. Udalan errepresentazioa duten lau alderdietatik hirukin aritu dira, EA, EH eta PSE. Beste alderdiak, EAJ-k, dirudienez ez zuen nahi izan Plataformako kideekin hitz egin. Lehen kontaktu hauek izan ondoren, eta sinadurak jasotzearen kanpaina amaitu ondoren, tarifen gaia Udaleko Zerbitzu Batzordera pasa zen. Han gertatu zenaren berri EHko



zinegotzien bidez jakin dugu, Batzorde horietara ezin baitute herritarrek sartu, eta dirudienez, ezin baita gertatutakoaren aktarik jaso.

Zerbitzu Batzordera alderdi politikoez gain Plataformakoak ere joateko aukera izan zuten beraien eskakizunak egiteko. Batzordea osatu aurretik, EAJ-k Udal Gobernu bezala, Zumaiaiko Udala eratzen duten beste alderdiei bina zinegotzi joatea eskatu zieten. Biler hasteko orduan, EH, EA eta PSEko bina zinegotzi zeuden, Plataformako beste bi kide, EAJkoak, Udal Gobernu bezala, bost zinegotzi eta Kirolzer enpresaren aldetik hiru kide (enpresako bi ordezkari eta lehen estudioa egin zuen pertsona). Hitza hartzen lehena Ricardo Peña alkatea izan zen. Honek orain arteko pauso denak esplikatu zituen. Ondoren Kirolzer-ekoek hitz egin zuten, beren gestioaren berri emanaz eta azkenik, Plataformakoek hartu zuten hitza, beraien eskakizunak egin zituztelarik.

Honen ondoren, eta EH-ko zinegotzien esanetan, bai Kirolzer eta bai Plataformako kideek momentu horretan gela utzi beharko lukete, alderdi politikoei gaia eztabaidatzeko aukera emanaz. Baina ez zen hori gertatu. Udaleko alderdien arteko bilera politikoa izan behar zuena, Kirolzer eta Plataformaren arteko hitzeko guda bat bihurtu zen. Zirudienez EAJren asmoa, EH-ko zinegotzien esanetan, Plataforma eta Kirolzer-ren arteko enfrontamendu bat egotea zen, horrela Plataformak lortu zuen legitimidadea kenduz.

Zerbitzu Batzorde honetan ez zen inongo erabakirik hartu. Gai honek herri mailan hartu duen indarra dela eta, Zumaiaiko Udaleko oposizioko alderdiek berriro ere Batzorde hau eratzea eskatzekotan dira, ondoren Udal Plenora eramanaz. Ikusiko dugu gai honek nola jarraitzen duen.

◀ **JUAN LUIS ROMATET**



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA



HARAKINA

Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Laurrelaldiak
- 24 ordu
- zentze etxean



Notaria zaharreko etxea bota dute

Denborak ez du barkatzen. Duela egun batzuk lehen notaria zegoeneko etxea bota dute –Maxi ileapaindegia zegoen bertan–. Horrelako ikuskizunak noizean behin gertatzen direlako-edo, jende ugari bildu zen inguruan, etxe zaharreko hormek betirako nola etsitzen zuten ikustera.

Patxi Aristik gose grebari ekin zion abenduaren 1ean, Martuteneko espetxean, euskal preso politikoen kolektiboak aurrera daraman protestaren barruan. Gose greba horren bidez presoek bi eskaera nagusi egiten dituzte: bake prozesuan parte hartu ahal izatea eta beren giza eskubideak errespetatu ditzatela (Euskal Herriko kartzeletara ekartzea, preso politikoen estatusa aplikatzea, gaixorik dauden presoak eta zigorraren 3/4ak bete dituztenak kaleratzea eta entrega eta estradizio gehiago ez). Gose grebako lehenengo astean Patxi lau kilo galdu zituen. Aipatzekoa da Martuteneko presoek duela hiru aste zuzendaritzarekin hitz egiteko eskatu eta oraindik ez dutela inolako erantzunik jaso. Halaber, zuzendaritzak presoek euskarako gela itxi berri die. Patxiri elkar-tasuna adierazteko martxa bat irtengo da Martutenera abenduaren 18an, arratsaldean.

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Antonio Etxabe

*Gizonezkoen
erropak*



Zumbillo, 4 Tel. 861407

Zumaia aukeratu du Errealak 99/00 denboraldiko posterrera. Abenduaren 10ean izan zen aurkezpen ekitaldia udaletxean, eta aurretik taldeak entrenamendu txiki bat egin zuen Aita-Mari futbolzelaian. Kriston kristoa montatu zen erreala zetorrela eta. Hemen duzue kronika txiki bat argazkitan.



Egun handia izan zen Zumaian Abenduaren 10a. Ehundaka zaletu bildu ziren Aita-Mari futbolzelaian. Haurrak, jubilatutak eta kazetariak batipat. Bakoitza bere argazki kamara eskuan zuela.

Clemente 10etan iritsi zen bere "Mercedes"-ean. Taldearen autobusa 10'15ean. 10etan hastekoa zen entrenamendua baina 10'45 arte ez ziren atera. Kiroldegiko arduradunek komentatu zuten baloiarekin jolasean aritu ziren dutxetan. Argi bat ia bera bota omen zuten balonazo batekin.



20 minutu egin zituzten berotzen. Gero partidiloa. Peto zuriarekin: Gerrero, Llorente, Aranburu, Aranzabal, Bonilla, Sa Pinto, Barkero, Gomez, Alvarez, De Paula eta Corino. Petorik gabe: Alberto, Fuentes, Pikabea, Antia, Idiakez, Lopez Rekarte, Loren, Mutiu, Aldeondo, Kuhbauer eta De Pedro. Ikus daitekeenez Clementek ez zuen pistarik eman iganderako hamaikakoaren inguruan.

Ikusmina izugarria zen. Jokalariak berotzen ari ziren bitartean albotik segika izan zuten haur kuadrila bat, zelaiairen punta batetik bestera korrika. Korner batean 'Donostiako Orfeoia' aritu zen: Eskolaurreko talde bat 'txuri urdin' marrua baten kantatzen. Argazkian ikus daitekeenez, piszinan zeudenak ere entrena- mendua ikusten egon ziren, uretarako txapeltxo eta guzti.



ARGIA
ARROPADENDA
Itzurun, 1 Tel. 143224

Arkupe
Okindegia eta gosariak
Kale nagusia, 2 Tel. 861521

ad AUTOS ZUMAIA
Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Entrenamenduan gogoz aritu baziren ere, hau bukatu ondoren bota zituzten izerdi gehienak Realeko jokalariek. Autobuserako bidean ehundaka zaletu zituzten zain, guztiak ere autografo bat lortzearren hortzak luze-luze eginda. De Pedro izan zen ateratzen lehena. Kiroldegiko atletik irten beharrean futbol zelaitik irten zen korrika batean, eta bi segundutan autobusean sartzea lortu zuen. Gainerakoek ez zuten hainbesteko zorterik izan.



Udaletxean egin zen posterraren aurkezpena. Errealeko talde osoa, Udaleko ordezkaritza bat eta Pepsiko direktiboak zeuden bertan. Clemente harrituta gelditu zen 'Telmo Deun'ak ateratako bandera guztiekin. 'Pero si tienen más que el Kaiku!' zioen behin da berriro.



Hauxe da posterra. Oraindik lortu ez duzuenak lasai, 70.000 ateratzeko asmoa baitu Errelak. Aurkezpenean Ricardo Peña Alkatea, Luis Uranga, Realeko lehendakaria, eta Ion Arteta Pepsiko arduradunak hitzegin zuten. Hitzaldiaren ondoren jokalaria argazkia ikustera gerturatu ziren. Kuhbauer gustora zegoen, 'soy el más guapo!' esan zigun eskuarekin garaipenaren ikurra eginaz.



Udaletxeko ektaldiaren ondoren bazkaria 'Pulpo'n.
Ardo onak, plater gozoak...
Hainbeste atentzio gero Deportiboren kontra
Anoetan 1 eta 0 galtzeko!



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 861018



Azkue Autoak

Tel. 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 861067

Zumaia sei onenen artean

Herri arteko txapelketan Orio eta Oiartzungo taldeak gainditu ondoren, Zumaiaiko taldeari Azpeitiko Landeta taldeari aurre egitea egokitu zitzaion, eta Bergaran jokaturako kanporaketan "xapuak" nagusitu ziren, baina erronka handirik gabe. Saioaren amaieran 20 puntuko aldea egon zen azpeitiarren alde, 1497-1476,5, baina zumaiairek ere finalerdietara igarotzeko adina meritua egin zutelaren esan genezake.



Azaroaren 20ko arratsaldeko 7etan hasi zen bertso-egitaraua, orduantxe irten baitzuen zumaiaarren autobusak Pulpo aurretik. Barruan 40 bertsozale baino gehiago, pankarta eta guzti zumaiairrak animatzeko prest. Kanpoan, hotza nagusi! Taldetxo batek "porra" antolatu zuen kanpoko tenperatura adierazten zuen termometroari begira, eta haiek egiazta-tukoa da 2 eta 4° C tartean ibili zela.

Astopistan barrena Elgoibarra iritsi eta ordurako bazterrak zuri! Bat baino gehiago kezkatzen hasi zen. "Iritsiko ote gera jatetxera? Elgetako aldapan daola aitu iat nik!". "Lasai eon ai, besteik ezpaa oinez jungo gaittuk-eta". Elgetara bidean bai, baina aldapa hasi baino lehen dago Tartufo handiaren etxea. Eskerrak. No!! Elegante samarra ez ote da hau hain afari merkea egiteko? Mahaietan eseri eta berehala konturatu ginen diskotekatxoa ere badela, argi distiratsu eta guzti. Ospatzera bertara bueltatuko ote ginen komentatu zuen batek, 12:30ak aldean festatxo bat bazegoela jakin genuenean. Urik gabeko baratzuri zopa bero-beroa aurrea (tenperaturagatik baino gehiago piperren indarragatik) hotzari aurre egiteko, baserriko oilaskoa ondoren, eta postrearen ondoren lapikoko kafea, denborarik ez galtzearen. Bederatzi t'erdietan Tartufoi bertsoz eskerrak eman, Pipi zerbitzaria agurtu, eta autobusean sartu eta

Bergarako pilotalekura. Iritsi zen bertsolarien ordua!

Bideak gaizki samar zeudelako edota etxean goxo-goxo egoten zelako, ez zen jende askorik bildu, ezta Azpeititik ere. Zumaiairrak nagusi, "txalometroan" behintzat! Aurrez harrokeria pixka bat erakutsia zuten azpeitiarrek, baina oholtzan ez zen alde handirik egon. Alerik aipagarrienak zumaiairrenak izan ziren, gainera. Jon Maiak honela erantzun zion, oilo zaharraren paperean, kutxiloa zorrozituta zetorren amona zaharrari: "zu ere zaharra zera / ta inork ez zaitu hil". Lizarretak ere saio polita egin zuen (kopletan oso ona) eta jendearen barrea eragin zuen, "Euroa" gaitzat hartuta, honakoa abestu zuenean "...begi bistatik kendu nahi nuke / erregearen muturra". Beste biak baino urduriago ibili zen Olalde, saioan bete-betean sartu ezinik, bakarkao saioan honela kantatu zuen arren: "... gure bertsoen zai/ondo kantatutzea/besterik ez det nahi".

Bueltako bidean batzuek epaileak ederki zirikatu zituzten, zumaiaarren alde puntu gehixeago eman ez zutelako, baina zer egingo diogu ba! Gutxi al da 24 taldek parte hartu duten txapelketa batean sei onenen artean geratzea? Hurrengoan gehiago!

II. Bertsopaper lehiaketa

Iaz hasitako bideari jarraituz, aurtén bigarren bertsopaper lehiaketa antolatu du Bertso Eskolak. Lehiaketa honetan 14 urtetik gorako zumaierrek har dezakete parte eta gaia honako da. "ZUMAIK XX. MENDEARI AGUR". Gutxienez 6 eta gehienez 10 bertso idatzi behar dira eta abenduaren 29a baino lehenago aurkeztu Foronda kultur etxean.

Lan onenaren egileak txapela, oroigarria eta 25.000 pta jasoko ditu, eta bigarrenak, berriz, oroigarria eta 15.000 pta. Sariak seguruena urtarri-laren 8an banatuko dira, Joanito Dorronsororen omenezko ekitaldiaren barnean. Forondan emango dizute argibide gehiago eta hantxe jaso ahal izango dituzu oinarriak oso-osorik.

◀ **XABIER AZKUE**

Ondo merezitako omenaldia

Azken 20 urte baino gehiagotan Ikastolan eta Bertso Eskolan egindako lana erreko-nozitu eta eskerrak emateko omenaldi bat eskaini nahi zaio Joanito Dorronsorori, eta Bertso Eskolako kideek dei zabala egin nahi dute Joanitoren irakas-penak jaso dituen ikasle eta lagun orok ekitaldi hauetan parte har dezan, batez ere urtarriaren 8ko ekitaldian. Lehenik antolatzen ziren gazteen saioa eta bertsopaper lehiaketa, beste hainbat ekitaldirekin hornitu dute Bertso eskolakoek: mahai-ingurua, bertso-poteoa, erakusketa... Egunak, orduak eta tokiak guztiz ziurtatzerik ez ditugun arren, hona aurrera dezakegun egitaraua:

Urtarrilak 3, astelehena.

• **MAHAI-INGURUA.** Forondan, arratsaldeko 7etan. Gaia: "XX. mendeari begirada".

Hizlariak: Joanito Dorronsoro, Juan Mari Lekuona eta Andoni Egaña.

Moderatzailea: Jon Maia.

Urtarrilak 4, asteartea.

• **AMURIZAREN EMANALDIA.** Forondan, arratsaldeko 7etan. "Xalbadorren bat-bateko mirakulua".

Urtarrilak 7, larunbata.

• **BERTSO-POTEOA** (Euskal Presoak Euskal Herriratzearen alde)
• **JOANITORI OMENALDIA:** bertsoak, kantuak, ikuskizunak...

Urtarrilak 14, ostirala.

• **BERTSOLARI GAZTEEN JAIALDIA.** Aita Mari zinean, gaueko 10etan. Joxe Joakin Aizpurua, Amets Arzallus, Iñigo Eizagirre, Leire Ostolaza, Xabier Silveira eta Jose Luis Urdangarin.

Egitarau zehatzagoa garaiz iragarriko da. Adi egon!

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

balezulo
importaturiko erroa eta artisauntza



Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak
GARRAIO ASTUNAK



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073

CORO PRIETO
Esteliciola

Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g



Basadi Auzategia, 10 behe
Tel. 862051

DORNUTEGI

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Joxe Mari Lopetegui:
Ostarrena Zine Klub
taldeko lehendakaria

"Ohizko film komertzialak Ostarrena programa- zioan ez du lekurik"

*1994tik orain arte, Ostarrena
Zine Klub taldeak
hamabostean behin zine
forum saioak antolatzeari
ekin dio, beti ere Hollywoodek
ezartzen dituen modetatik
kanpo dauden filmak ekarritz.*

*Urrian hasi dute denboraldi
berria, eta maiatza arte
behintzat martxan
jarraituko dute. Talde honi
buruz zerbai gehiago jakiteko
klubeko lehendakari den Joxe
Mari Lopetegirekin jardun
dugu.*

B Urrian hasi duzue denboraldi
berria. Hasiera ona izan al duzue?
Hasiera oso ona izan dugu, aurreko
urteko denboraldiarekin konparatuz



Joxe Mari Lopetegui (eskuinetik bigarrena) Ostarrenako beste kide batzuekin.

behintzat. *Dioses y monstruos* filmakin
ikusle asko etorri ziren, oso ondo hasi
ginen. Ondorengo pelikulekin ere
jende ugari etorri zaigu. Orotara 100
ikusle inguru etortzen zaizkigu film
bakoitzeko eta media hori oso ondo
dago. Aurreko urtean oso jende gutxi
etortzen zen, agian ostegunero
eguraldi txarra izan genuelako. Asko
egiten du euririk ez egiteak, eta orain
arte nahiko zorte haundia izan dugu
alde horretatik.

B Ostarrenaren arazo handiena beti
ere ekonomikoa izan da. Konpondu
al duzue arazo hori?

Hori izan da beti gure arazoa, baina
ikusle kopuru horrekin jarraitzen
badugu, ez dugu arazorik izan behar.
Guk hiru diru iturri ditugu, Foru
Aldundia, Udaletxea eta takilla, eta
oraingoz ondo goaz. Hori bai, ikusle
kopurua jeisten bada, asko igartzen
dugu. Nahikoa da 25 pertsona
gutxiago joatea saio batera kalte
haundia egiteko, beti ere diru aldetik
oso ajustatuak joaten baikara. Dirua-
rekin dugun arazoa oso argi 1996an
gertatu zenarekin ikus daiteke.

Orduan ez genuen Aldundiaren dirula-
guntzarik, Udaletxekoa eta takillako
dirua besterik ez genuen, eta aurreko
denboraldian sortutako diru zuloa
zela-eta, urte oso hori hutsean pasa
genuen. Ondoren Zine Klub
elkartean sartu ginen eta Aldundiko
dirulaguntzak jasotzen hasi ginen.
Diru iturri hau besteei batuz, manten-
tzeko adina ematen digu.

B Urte hauetan guztietan zer moduz
erantzun dute ikusleek?

Erantzuna oso ona izan da. Kontuan
hartu behar da Zumaia ez dela oso
herri handia, eta hala ere 100 lagun
inguru hurbiltzen dira zinera, eta hori
asko da. Gainera beste herrietako
erreferentzia batzuk ditugu, Elgoibar
eta Azpeitiakoak, herri handiak
direnak, eta bertako zine forum
saioetara oso jende gutxi joaten da.

B Ze motatako filmak ekartzen
dituzue?

Beti ere ekilibrio bat mantentzen
saiaitzen gara. Badakigu zine ameri-
karra oso zabaldua dagoela denon
artean, bere argumentu eta istorio



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

berdinekin, eta hori errespetatu behar da, baina aldatu ere egin behar da. Tartean film ezberdinak sartzen saiatzen gara, ez derrigorrez pelikula arraroak. Istorio, argumentu eta kontatzeko era ezberdinak dituen filmak programatu nahi ditugu. Gainera, iruditzen zait, zine forum saioak ikustera joaten diren ikusleak halako filmak ikusi nahi dituztela. Pasa izan zaigu film amerikar normal bat bota izan dugunean, *Sangre y vinoren* kasua, ikusle beraiek kexatu zaizkigula, filma hura "amerikaregia zela" eta. Hala ere argi dugu toke ezberdin bat izanda ere, ikusteko gogo sortzen duten filmak izan behar dutela, ez "ladrillo" batzuk. Zine amerikarra ikusteko nahi adina aukera dagoenez, beste filmagintza bateko pelikulak tartekatu behar ditugu, europarrak kasu, eta horretan gabiltza.

3 Nola aukeratzen dituzue Zumaian eskaintzen diren filmak?

Taldean sei lagun gara, eta normalean ekartzen dugun filma taldekide batek edo gehiagok ikusitakoa da. Ekartzen ditugun filmetako %90a inguru guk ikusitako filmak dira, ez derrigorrez denok ikusitakoak, baina bai behintzat taldekide batek ikusitakoa. Hobe gainera, taldekide batek baino gehiagok ikusia egotea, ze Ostarrenako taldekide bakoitzak bere gustoak ditu, eta bati gustatzen zaionak agian besteari ez dio inolako graziairik egiten. Hala ere, batzutan taldekide denok film batekin ados jartzen gara, nahiko arraroa bada ere. Nik argi dudana zera da, asteburuan Zumaian ikusgai dagoen ohizko film komertzialak, Ostarrenaren programa-zioan ez duela lekuri. Hollywoodetik

datorren filmak zerbait berezia izan behar du guk botatzeko, zuzendari on bat, gai interesgarria... *El club de la lucha* adibidez, filma oso ona ez bada ere, oso interesgarria da. Baina hemen bota denez...

3 Aurreko urteko gabonetan zine klasikoa ekartzen hasi zineten. Zergatik?

Ostarrenaren hasieratik denboraldikoak edo bizpahiru urte lehenagoko filmak ekarri ditugu, Zumaia etorri ez direnak eta berreskuratzea merezi dutenak. Honekin zertxobait hausteko, oportet film klasikoak ekartzea erabaki genuen aurreko urteko Gabonetan. Txuri-beltzeko eta jatorrizko bertsio film klasikoak ekartzea. Eta zergatik? Ba oso garrantzitsua iruditzen zaigulako zineko pantaila handian klasiko hauek ikustea, Zumaian azken urte hauetan ikusi ez dena, eta guk ere oso gutxitan ikusi izan duguna. Urtean pare bat film klasiko ekartzea oso ideia ona iruditzen zait. Gainera pelikula mitikoak dira, aktore eta zuzendari mitikoek eginak. Guk film klasikoek eskaintza honekin jarraitzeko asmoa dugu, eta ahal badugu behintzat urtean klasiko bat baino gehiago ekarri. Aurreko urtean saio bikoitza egin genuen, baina ikusi genuen honek ez zuela hain ondo funtzionatu, ekonomikoki gehienbat, eta oraingoan filma bakarra ekarriko dugu. Hala ere oso garrantzitsua da pelikula hauen kopia zer moduz dagoen jakitea, ze aurreko urteko esperientziaren alderik txarrena, bota genituen bi filmen kopien egoera ikustea izan zen, ez bata ez besteak ez baitzuten betetzen kalitate aldetik minimo bat.

3 Ikusle batzuk filmak jatorrizko bertsioan eskaintzea eskatzen dute.

Gure asmoa tartean filmak jatorrizko bertsioan eskaintzea dago. Noski ezin ditugu film denak beste hizkuntza batean eta azpititulatuak bota, ze ikusle gehienak kexatu egingo lirateke. Baina gure asmoa noizean behin halako filmak botatzeko da, ze gure ustez film bat gehiago disfrutatzen da jatorrizko hizkuntzan izanda. Denboraldia hasi dugunetik, oraindik ez dugu jatorrizko bertsio filmarik eskaini, baina klasikoarekin hasi, eta datorren urtean pare bat filma horrela botako ditugu.

3 Urtariletik aurrera ze filma ikusteko aukera izango dugu?

Zerrenda bat eginga dugu, baina oraindik ez dakigu ziur ze film ekarriko ditugun. Esate baterako, ziur esan daiteke, maiatzako azken filma zein izango den, orduan pelikula pixkat arraragoak ekartzen baititugu. Orain hiru urte *Crash* ekarri genuen, aurreko denboraldian *I want you*, eta datorren urteko maiatzean Terry Gilliamen *Miedo y asco en las Vegas* ekartzeko asmoa dugu. Bestela zerrendan ditugu Bertrand Travenierren *Hoy empieza todo*, Sam Raimiren *Un plan sencillo*, *De todo corazón*, *Cookie's fortune*... zertxobait aldatu. Gu Estatu Batuetako filmak eta beste filmagintzakoak konbinatzen saiatzen gara. Tematika gogor edo triste bateko filma bat ekartzen badugu, datorrena komedia bat izaten saiatzen gara. Nahiko zaila da, ze pelikula gogor edo triste asko daude, baina komedia onak oso gutxi.

◀ JUAN LUIS ROMATET

EGUZKI
PUB
Koktel bereziak
Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ekin
eletrizitate, s.l.
instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador
Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+

CANAL DIGITAL

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777



Odieta auzoa

bere pilotalekua, errebotea eta kirolari buruzko beste kontu batzu

Txiki txikitatikan

Frontoi txikiko txapazko ate lodi haren atzian kokatzen da arazoaren muina. Gaur egun Odieta auzora joateko, frontoia zeharkatu orde; ate exkax hau zeharkatzea errazago egiten zaigu. Guk txikitan ezkutatzeko erabili genuen ate hori ikastolatik piper egin genuen batean.

Pilotalekuaren atzean, frontoiaren atzian dagoen auzoak herriaren partaide izateko eskubidea du; eta Zumaiak azken urteotan hartu duen aldaketaren partaide izateko irtenbide bat bilatu beharko genuke.

Berlingo horma, gerra hotza

Aspaldi proposatu dira hainbat irtenbide Odieta plazara irekitzeko. Harresia botatzea izan da azkarrena eta errazena. Pilotalekua lekuz aldatu eta kitto. Arazoa sustraiaietatik

suntsitu. Frontoia belar txarra izango balitz bezela.

Pelota eta euskal enparantza

Euskal herriko hirigintzari lotu loturik dago frontoia; ezker paretarekin edo gabe. Iparraldetik hegoaldera, herri txikienak ere elizazpia bada ere pareta txapa betekin prest izaten du, jokorako prest.

Azkoitaiko plaza, Elgoibarko plaza, Andoingo plaza, Arrasateko cerra-
jerako plaza, Segurako plaza,
Getariako pilotaleku irekia... etab.

Plaza eta pilotalekuak izate berbera izan dute betidanik gure hirigintzan.

Pilotaleku egokia bilatzen

Zumaian pilotak izan dituen gorabeherak kontuan izanda, pilotaleku berria eskatzeko arrazoi indartsuak

izan behar direla uste det. Arrazoi bat aurkitzekotan Zumaiatik irten diren pelotari profesional kopurua aipatuko nuke. Aspaldian izan zituenaren parekoa ez bada ere, kontuan izatekoa baita.

Pilotaleku berri bat eraikitzea beharrezkoa da, Odieta zaharrari duena baino gehieago eskatzen hasi baitzaie Zumaiako pilotariak.

Odieta herrira bueltatu

Behoko plazaren izana galduko genuke frontoia kenduko bagenio. Errebotean metro batzu kenduz Odieta kalea ireki, dorreberri erabe-
rritu, Zulo ilun izatetik, interes handiko hirigune bihurtuko bait genuke.

◀ DANIEL CARBALLO

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 943 14 33 95

expert 
ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezaretza, 6

Tel. 861078



Miriam Romatet

Nire alabekin
edozein iluntzeko
ordubete
burrukan

Zer erregalatuko zenioke Gabon hauetan gorroto duzun pertsona bati?



Sergei

Gau bat
Klaudio
"Txotxi" Landarekin



Juanma Gurrutxaga

18 semaforo
gorrian
segidan



Josu Egaña

"El péndulo de
Foucault"
osoa
irakurtzea



Karmele Ezeiza

Ez diot
erregalurik egiten
gorroto
dudan pertsonari



Asier Larburu

Ikatza




Mireia Galarraga

Txartel bat
isla desertu
batetara

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81

GUDARI AUSARTA



ETA BADAUKAGU
ERABAZLE BAT!!
AURRERA BOB!!



ESKERREKASKO, MEKE!
HEMENTXE DAUKAGU
GAURKO ERABAZLEA
ETA HETZ BATZUK
ESKATUKO DEZKEGU



BENO BOB!! EGRA
ESAN OSO ONDO
PASA DUT NAHEZ
ETA BORROKA
LATZA EZAN



BA, ZOFONAK! ETA ERUS
DEZAGUN. ZIEEN DA
ZURE SARREA
MESEDES, MEKE!!



GAURKO ERABAZLEAK
BENETAKO ALIXORRA
ERAMANGO DU...



AEN ZUZEN ERE
URTE OSORAKO
GARBEKARRA
LORTU BART DU"



ETA GAURKOZ HAU
DUGU GUZTEA EZ GAL-
DU "GUDARRE AUSARTA"
REN URRENGO SARREA.



2

De En

Nola jarri garapen jasangarriaren bidean?

Aurreko zenbakian garapen jasangarriaz eta gizarteak ingurunearen zaintzan duen arduraz mintzatu ginen. Dena den, teoria hutsa ez da oso lagungarria eguneroko ohiturekin uztartzen ez bada, eta horretan saiatuko gara oraingo honetan.



Horretarako, ideia orokorrak azaltzeaz gain, taulan norberak ingurunearen alde egin ditzaken zenbait ekintza konkretu azaltzen dira.

Natur baliabideak

Natur baliabideak, hala nola, energia, ura eta kontsumorako gaiak (plastikoa, papera, metalak, zura...), ahalik eta modurik zuzenenean erabili behar dira, inoiz ere ez baliabide horiek birsortzeko duten gaitasunaren gainetik, bestela denborarekin agortu egingo direlako.

Natur baliabideak modu egokian kudeatu ahal izateko zenbait neurri hartu beharko dira etorkizunean: energia iturri berriztagarrien erabilpena areagotu (haizea eta eguzkia batik bat); uraren gestioa nabarmen hobetu beharko da, eta berrerabilpena sustatu; eta kontsumo gaien birziklajea, berrerabilpena eta murrizketa bultzatu.

Kutsadura eta hondakinak

Giza talde baten eguneroko jarduerak ezin du inolaz ere arriskuan jarri pertsonen osasuna, ezta naturak hondakinak onartzeko duen gaitasuna gainditu ere.

Ingurunea ardatz duen kudeaketa publikoak hondakin eta isurketak murriztera jo beharko du. Oso garrantzitsua da ura eta atmosferaren kalitatea zaintzea kutsadurak

pertsonen osasunean kalterik eragin ez dezan. Horretarako neurri jakin batzuk hartu beharko dira.

Lurraren erabilpena eta bizi aniztasuna

Intereseko ekosistemen balioa behar bezala neurtu beharko da, eta kasuan kasu babes maila egokiena eman, eta beharrezkoa denean ekosistema horiek berreskuratzeko neurriak hartu, beti denboran iraungo dutela ziurtatuz. Hiri garapena ezin da inola ere natur baliabideen eta lurraren erabilpen jasangarrien kaltean antolatu, lurra baliabide mugatua dela ahaztuta.

Lurraldearen antolakuntza egiterakoan, kontutuan izan behar da natur baliabide gehien duten eremuetan normalean ezin dela eraikinik egin. Honetaz gain, kontutuan hartu behar da zenbait jarduerak ingurunearen gain duten eragina (industria, hiriak edota nekazal jarduerak, besteak beste).

Ekosistemak behar bezala zaindu ahal izateko, ezinbestekoa da hauek sakonki ikertzea, beraien osasun maila neurtzea. Orduan bakarrik martxan jarri ahaliko dira desagertzeko arriskuan dauden espeziek salbatzeko neurriak.

◀ GONTXALO TORRE / GORKA ZABALETA

Garapen jasangarria lortzeko zenbait aholku

Helburua: Natur baliabideak mantendu

•Argi indarraren zati handiena zentral nuklearretan eta termikoetan sortzen da. Bere erabilpena murriztu behar da.

•Energia iturri garbiak gero eta garatuagoak daude. Haizearen indarra eta eguzkiaren energia erabili behar dira gero eta gehiago.

•Batzutan uraren %40^a galtzen da bidean. Hori saihestuta aurrerapauso handia emango da.

•Ura edangarria bihurtzea oso garestia da, eta edateko bakarrik erabiltzea komeni da.

Industrian, garbiketa lanetan eta lorategietan araztegieta garbituriko ura erabil daiteke.

•Produktu askok alperrikako edukinontzi edota zorroak dituzte, eta beste batzuk oso arriskutsuak dira ingurunearentzat. Hauek ez kontsumitzea da gure aukera.

Beira, papera, metala, plastikoa etabar birziklapena jardura ekonomiko garrantzitsua ari da bilakatzen, eta denok egin dezakegu horren alde.

Kutsadura eta hondakinak:

•Askotan aldaketa txiki batek ez du eraginik produktuaren kalitatean eta ez du eraginik enpresaren kostuetan. Askotan arlo ekonomikoan ere mesedegarriak izaten dira.

•Hondakin toxiko eta arriskutsuak behar bezala tratatu behar dira. Ezin dira edonola utzi kontrolik gabeko zabortegetan.

•Ura oso kutsatuta dagoela gauza jakina da. Ezinbestekoa da kutsadura murriztea eta araztegien bidez ura garbitzea.

•Lur eremu txikietan jardura kutsatzaile ugari ez pilatzea komeni da.

•Zarata ingurugiro arazo larria da, eta neurriak hartu behar dira trafikoa murrizteko eta zarata handia sortzen duten jarduerak kontrolatzeko.

Lurraren erabilpenak eta bizi aniztasuna:

•Lurraldearen antolaketa zuzenaren bitartez bakarrik lor daiteke hiri eta industri jardura eta ingurunearen arteko oreka.

•Natur baloreak mantentzea behar dira, higidura, kutsadura edota basoen murrizketari aurre egin ahal izateko.

•Ekosistemen babes giza eskakizuna da jadanik, eta administrazioaren eginbeharra da.

•Natur guneak behar bezala zaintzea onuragarria da ingurunearen ikuspuntutik, baina baita diru iturri garrantzitsua.

•Animali eta landareen kontserbazioa oso garrantzitsua da herriko ingurunearen hobekuntza prozesuaren barnean, balio handiko ondasunak baitira.



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrikoi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea

Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzu eta arloko departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334



HORBEL
PAPER-DENDA

HELBIDE BERRIA!!

Basadi, 7 behea

Tel./Faxa: 943 14 34 53



Alai auzategia, 2

Tel. 943 14 33 24



Erribera kalea

Tel. 861523

ILEAPAINDEGIA
TRUITZ

San Telmo, 12

Tel. 860760

BALEIKE



Denetarik entzun dugu: bizikleta uztera zindoazela, profesionalelara igotzeko eskaintza duzula... Zein da benetako egia?

Portugaleko talde profesional baten deiaren zain gaude. Oso berandu da, baina han gauzak beti azken orduan egiten dituzte, eta zain egon behar. Bitartean, ziklo-kroseean aritzeko esan dit zuzendariak, eta lasai egoteko. Dena den, Portugalekoarekin ikusiko dugu zer gertatzen den. Nik profesionaletan korritu nahi dut, baina ez edozein baldintzatan. Portugalen aritu direnek denetarik esaten dute. Batzuek oso ondo egon direla, baina beste batzuek oso gaizki, eta nik ez dut urtebete egin nahi profesionaletan besterik gabe egiteagatik.

Eta Portugaletik ez badute deitzen?

Orduan agian errepidea utzi egin beharko dut. Saunier Duvalekin abenduaren 31n amaitzen zait kontratua, eta berez datorren urterako taldea eginga dute. Agian

Igor Beristain:

"Oraindik ez dakit datorren denboraldian errepidean izango naizen"

Igor Beristainek bikain ekin dio ziklo-kros denboraldiari –baita Oier Egañak ere–. Bizpahiru lasterketa irabazi ditu jadanik, prestaketa berezia egiteko astirik izan ez duen arren. Errepideko hurrengo denboraldiari begira, ordea, gauzak ez daude batere garbi. Portugal aldeko talde profesional baten deiaren zain da Igor, baina denbora aurrera doa eta ez du haien berririk.

entrenatzaileak leku bat egingo lidake, baina une honetan esan daiteke datorren urterako ez dudala ezer.

Zenbat urte dituzu Igor?

25, eta uste dut unea iritsi zaidala. Afizionatueta jarrai nezake, baina ez da serioa 30 urterekin oraindik hor ibiltzea. Egia esan orain arte ez nintzen konturatzen adinean aurrera egiten ari nintzela, baina une bat iristen da tropeleko aurpegiak erabat aldatzen direla, zurekin hasitako batzuk profesionaletan daudelako eta gehienek utzi egin dutelako. Aurten izugarri nabaritu dut. Nire kintakoa gipuzkoar bakarra naiz.

Igor, zuk beti errepidea eta ziklo-krosa egin al dituzu?

Txikitan errepidea bakarrik egin nuen, bigarren urteko kadetea izan nintzen arte, lehenago ezin baita egin. Orduan hasi nintzen neguan ziklo-krosa egiten. Orain dela hiru urte ziklo-krosa utzi egin nuen. Kaikun nengoen

eta zuzendariak ez zidan esaten uzteko, baina nahiago zuen ez korritzea, denboraldia luzeegia egiten zitzaidalakoan.

Prestaketa asko aldatzen al da errepidetik ziklo-krosera?

Bai, zeharo. Errepideko denboraldia prestatzeko bizikleta egiten duzu, besterik ez. Ziklo-krosarako berriz, denetarik. Errepiderako hiruzpalau ordu ibiltzen zara egunero bizikletan. Ziklo-krosarako, goizez pare bat ordu egiten ditut mendia bizikletarekin eta arratsaldean kiroldegira joaten naiz, gimnasia edota igeri egitera. Entrenamendu saio laburrak dira, baina biziagoak. Lan gehiago egiten da, baina denbora gutxiagoan.

Ziklo-kros denboraldirako zein helburu dituzu?

Nire asmoa da lasterketetan ahalik eta ondoen ibiltzea, txapelketak bereziki prestatu gabe. Txapelketak prestatzera joaten bazara, gero azken

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

Itzurun
ATEAK

Itzurun zuhaitzbidea, 2
Tel. 861565 - 143446

orduan edozer gauza gertatzen zaizu eta akabo.

David Seco da oraingoz zure gainetik agertu den bakarra.

David Secok gurekin korritzen zuen afizionetuetan, eta duela hiru urte utzi egin zuen, ez baitzebilan ondo. Ziklo-krosera dedikatu da, eta espezialista ona bihurtu da. Gustukoa du eta gogor saiatzen da. Denboraldia oso indartsu hasi da, baina espero dut karrerak korritu ahala berarengandik hurbil aritzea. Egia esan, uste baino abantaila txikiagoa ateratzen du orain arte, baina berak ez du azken unera arte etsitzen eta oso zaila da berari irabaztea.

Zuk zer nahiago duzu, errepidea edo ziklo-krosa?

Ziklo-krosa beti nahiago izan dut, baina hortik ez dago bizitzerik. Ziklo-kros profesionala eta errepidekoaren artean aukeratzetik banu, ziklo-krosean ariko nintzateke, dudarik gabe.

Ziklo-krosa berpizterik ba al dago?

Nik uste dut baietz, baina badago jende bat Federazioan gauzak behar bezala egiten ari ez dena. Ez diete laguntza handirik ematen antolatzaileei. Ni jubenila nintzenean bakarrik Gipuzkoan 10-12 lasterketa korritzen genituen. Orain bakarra dago, Aizarnazabalgoa.

Afizionatuetan urte mordoak bat eman duzu.

Bai, hala da. Lehenengo urtean nire kabuz ibili nintzen, talderik gabe, Gurutze Gorrian bainengoen soldaduska egiten. Bigarren urtean Caravanas Oñate taldean korritu

nuen, hurrengoan Anoetako Belodromokoek ateratako talde batean aritu nintzen, eta laugarrena Tolosako talde batekin. Bosgarren urtean Kaikuk fitxatu ninduen eta haiekin bi urte egin nituen, eta azken hau Saunier Duvalekin. Zazpi denboraldi guztira.

Santiagomendiko igoerako errekorra zurea da oraindik.

Hala da. Ni ez naiz inoiz irabazle petoa izan. Postu on asko egin ditut, baina irabazi gutxi. Hala ere, 1997an eta 1998an Santiagomendiko Igoera irabazi nuen. Aurten belauneko arazoak izan nituen eta ez nintzen ondo joan eta bigarren egin nuen. Errekorra oraindik nirea da: 8:32. Bi kilometro eta gutxiko igoera da, baina izugarritzko horma da. Batzuk esaten dute urte asko iraungo duela marka horrek.

Zer moduzko kategoria da afizionatuetan?

Bizimodua profesionalenaren antzerakoa da; soldata, ordea, ikasten ari den langile xumearena. Nahiz eta talde indartsuenean korritu, ez da dirurik irabazten, maila hau ez baita horretarako. Helburua ongi ibiltzea da profesionaletara pasatzeko.

Dopinaren arazoa afizionatu mailara zabaldu dela esan du batek baino gehiagok.

Niri horrelako gauzak entzuteak nazka ematen dit. Bat edo bi errudun direlako afizionatu guztiak dopatzen garela esaten hasi dira. Pixka bat nabarmenduz gero, dopatuta zaudela esango dute. Nik horri ez diot kasu handiegirik egiten. Nik badakit ondo nabilela eta ez nautela inoiz harapatuko.

Euskaltel Euskadira pasatzeko, ezinbestekoa al da Olarra-Ecoreca taldean aritzea?

Nabarmenegia izan da. Euskaltelek lehenik Olarrakoak hartzen ditu, eta horrekin nahikoa badu akabo. Beste taldetan gehiago begiratu beharko lukete, jende ona baitago. Iban Mayorekin gertatu dena ez da normala. Bera izan da denboraldiko onena dudarik gabe, eta Baquen zegoelako ez zuten igo nahi. Azkenean fitxatu egin behar izan dute, konpromisoz. Garbi dago profesionaletara igotzeko ona izateaz gain entxufe bat behar duzula. Orain ezagutzen ditut Olarran izugarri ibili eta Euskaltelera igo ez dituztenak. Ruben Oarbeaskoa adibidez. Arrizabalagaren ondoren bera izan da taldeko onena, Bira irabazi zuen, eta Portugalera joan behar du. Ezaiozu ari Olarrakoek entxufea dutela Euskaltelekin.

GORKA ZABALETA

Mendiko bizikleta probatzeko prest

Errepidean jarraitzeko modurik aurkitzen ez badu, Igor mendiko bizikletarekin hasteko prest dago. "Mendiko bizikleta indarra hartzen ari da. Urte osoan zehar daude lasterketak, Espainiako Vuelta eta Frantziako Tourra antolatu dituzte, eta ondo ibiliz gero diru dezente irabazteko aukera dago. Hortxe dago Roberto Lezaunen kasua. Bizikleta uztera zihoan eta orain onenetakoa da mendiko bizikletarekin. Orbeako Iparragirrek eta Urdiainek errepidea utzi eta mendiko bizikleta hartu behar dutela esan didate. Besterik ez bazait ateratzen agian merezi du probatzea. Beste urtebete pasatzeagatik ez da ezer gertatzen, eta ondo ateratzen bada urrera".



Amaiako plaza, 13 Tel. 860758



Urumea, 6 Tel. 862083



Loredenda
JEMAR

LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK

Erribera, 1

Tel. 860375

Plaieroak oraindik aklimatatze fasean

Behin martxan jarrita, lehen fasearen erdialdera iritsia da txapelketa jadanik. Giro onean, eta gora-behera txiki batzuk salbu, partidu politak ikusten ari gara astebururo.

Esan beharra dago malgutasun handiegirarekin hartu dela partiduen egutegia, gauzak denen artean antolatzeko inor konkreturi azalpenak eman beharrik ez baitago. Horrela hainbat partidu atzeratu egin dira, honen ondorioz egutegiak aldaketak jasan dituelarik. Beraz, eta azken bileran erabaki zenez, hilaren 11ko partiduak 12an jokatu ziren, azken egun honetako bigarren txandako norgehiagokak hurrengo partidu egunera igaro dira (gabon bigarrena), eta horrela, gainontzeko guztiak korrituaz. Beraz adi izan iragarpen karteiei.

Gainontzean, eta azken bilerarekin jarraituz, lan talde finko bat ezarri da, lehen aipaturikoaren gisako arazoak saihesteko. Era honetan, eta lanerako prest azaldu diren hiruzpalau lagun hauei eskerrak, txapelketa zuzen-



xeago joatea espero da, hala, aurrikusi bezala finala San Telmotarako jokatzeko posible izan dadin. Baina horretarako denok jarri behar dugu zerbait, eta adibidez, bilerak antolatzen direnean, komenigarri izango litzateke talde guztietako ordezkariak azaltzea. Izan ere, aurtengoan txapelketa aurrera eramateko arazo dezente izan dira, eta partaideok hartu dugu antolatzeko ardura.

Bileran aipatu zen beste kontuetako bat partidu egunena izan zen. Izan ere orain arte hilaren 26ra arteko partiduak daude zehaztuta, hurrengo urteko marea ordutegia ez baita oraindik eskuratu ahal izan. Beraz, berandu baino lehen zehaztu ahal

izango delakoan, zain geratu beharko dugu. Beti ere, gogoratu kalean kartelak jartzen direla.

◀ **ENEKO DORRONSORO**

Datozen partiduak:

Abenduak 26

- 11:15**
- (1. zelaia) No Soluxion-Txixapa Arbitroa: Txikixa
 - (2. zelaia) Trapaia-Axier Kirolak Arbitroa: Ipurbeltz
- 12:45**
- (1. zelaia) Siete Mares-Oskarbi Arbitroa: Axier Kirolak
 - (2. zelaia) Basarri-Inpernupe Arbitroa: Buitraker



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A

Tel. 862081

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneako menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 861853




eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



Tel. 143379



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517

abendua

IKASTAROAK:

Bizikleta eta motorraren brikolaje ikastaroa. Gazteei zuzendutakoa. Matrikula 4.000 pezeta, Gazte Txartelaz 2.000

► Urtarrilean

ERAKUSKETAK:

• **Zumaiako argazki zaharrak.**

► Abenduaren 5tik 26ra
Oxforden

• **Euskal herriko zuhaitz eta zuhaixkak**

► Abenduaren 16tik 31ra
Forondan

• **XI Natur Jardunaldiak, Urari buruzko erakusketa**

► Abenduaren 29tik aurrera
Oxforden

BISITALDIA:

Bilboko **Bellas Artes** eta **Guggenheim** museoetara.

► Abenduak 18

IKUSKISUNA:

"Upeletan erronka."

► Abenduak 18, gaueko 10:30etan
Aita Marin

HAUR ANTZERKIA

"Azeriaren fabula"

► Abenduak 19, eguadiako 12tan
Aita Marin

SANTO TOMAS FESTA

► Abenduak 21, arratsaldean
Beheko plazan

DIAPORAMA

"Landareen sexua"

► Abenduak 22, arratsaldeko 7etan
Forondan

FUTBITO TXAPELKETA

GAZTETXOENTZAT

► Abenduak 22, 23, 27an
Lubaki kiroldegian

ZINE FORUM SAIO BEREZIA

Carol Reed-en "El tercer hombre"

► Abenduak 23, gaueko 10:30tan
Aita Marin

GABON KORUA ETA JAIOTZA

IBILTARIA

► Abenduak 24, arratsaldean

HATOR, HATOR...

A.A.B. eta Senideak amnistiaren aldeko **OLENTZERO**arekin kalean zehar kantuan egitera gonbidatzen zaituztegu. **ETXEAN NAHI DITUGU!**

► Abenduak 24, arratsaldeko 7etan
Inperuape aurretik

EGUBERRI KONTZERTUA

Musika Bandarekin

► Abenduak 25, eguadiako ordu 1ean
Maria eta Josen

GABONETAKO PARKE

BEREZIA

► Abenduak 28
Beheko plazan eta pilotalekuan

BIZARZURI ETA ERREGEEN

morroien etorrera eskutitzak jasotzera

► Urtarrilak 2, arratsaldeko 6:30etan
Beheko plazan

MAHAI INGURUA

"XX. mendeari begirada"

► Urtarrilak 3, arratsaldeko 7:30etan
Forondan

BERTSO EMANALDIA

Xabier Amuritzaren "Xalbadorren Mirakulua"

► Urtarrilak 4, arratsaldeko 7etan
Forondan

ERREGE ZAMALKADA

► Urtarrilak 5, arratsaldeko 6:30etan
hasita

BERTSOLARI GAZTEEN

JAIALDIA

► Urtarrilak 14, gaueko 10etan
Aita Marin



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143

ZALLA

Taberna - Erreteria

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387



Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705



Kresala
— edergintza —

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

• Depilaketa (beroa, epela)
• Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
• Aurpegia edertzeko sendabideak
• Gorputza edertzeko sendabideak
• Lurrindegia
• Solarium-a



*kamisetak
*txiskeroak
*paperezko poltsak, e.a.
baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69



LIBRERIA
A

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

ZINE FORUM

Abenduak 23, osteguna. Zine klasiko saioa.



El tercer hombre (The third man, 1949)

Zuz: Carol Reed

Akt: Joseph Cotten, Alida Valli, Orson Welles, Trevor Howard

Orain urte bete hasitako ohiturari jarraipena eman behar dio aurten Ostarrena Zine klub taldeak. 1998ko Gabonetan zine klasikoko saio bikoitz bat antolatu bazuen, Nicholas Ray-ren *Johnny Guitar* eta Richard Brooks-en *A sangre fría* filmak eskainiz, aurten ere zine klasikoa izango dugu protagonista Aita Mari zinean. Hasiera batean Orson Welles-en *Sed de mal* film bikaina ekartzeko asmoa zuten Ostarrenakoek, baina film hau ekartzeko arazoak zirela eta, azken momentuan aldaketa bat izan da. Zuzendari horren maisu-lan ikaragarri horren orde, Carol Reed britainiarrak 1949an zuzendutako beste maisu-lan bat pantailaratuko da: *El tercer hombre*.

Film hau Carol Reed-ek zuzendu bazuen ere, atzean Orson Welles-en figura dago dudarik gabe. Bere pertsonaia da filma guztian aipatzen dena, nahiz eta filma erdiraino ez den pantailan agertzen. *El tercer hombre* Graham Greene idazlearen liburu batean oinarrituta dago eta gerra ondorengo Vienan dago egina.

Filma honek 50 urte bete ditu aurten, eta hori dela eta goitik behera restauratu dute. Filma berri eta 11 minutu gehitu dizkiote, bere garaian montaje mahaian geratu zena. Orain eskainiko den kopia berria da, ia inoiz pantailaratu gabea.

El tercer hombre-ri buruz aipatu behar da baita ere historiako film britainiar onena bezala hautatu dutela Britainia Handiko zine kritikoek.

Luxu bat da fila hau pantaila handian ikustea, ez ezazue aukera galdu.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Nerabearen biluzia
Ai, ama!
Pasaia blues
Katiluaren ipurdia
Txorakikeriak 2

Xabier Mendiguren
Arantxa Iturbe
Harkaitz Cano
Martin Etxeberria Garro
Kike Amonarriz



Gaztelera

Melocotones helados
El egoista
La rosa de plata
No mires debajo de la cama
Ella, maldita alma

Espido Freire
Nativel Preciado
Soledad Puértolas
Juan José Millás
Manuel Rivas



Haurrak/Gaztetxoak

Tximinian harria sorginek ekarria Mertxe Escribano
Ipuin naturalak Xabier Monasterio
Jokoz kanpo Manu Lopez
Estatua baten historia Hasier Etxeberria
Pitxirro zirkus J. Martin Elempuru



LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6

Tel. 860415



Loitz

* Eskola eta
bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422



Ogiaren barruko poesia

Hizlariak nahi zituen guztiak eta gehiago esan zizkigun; aurrean jende multzoa ez ginen mugitu ere egin. Kritikatu gintuen, gero iraindu gintuen, azkenean publikoko batek altxa eta hizlariarekin elkarriketa labur bat izan zuen, bapatean pistola bat atera eta jata bertan akatu zuen. Publikoak txalo jo genuen. Laupabost gazte izango ginen; beste gehienak jubilatutak ziren.

Irteeran esan zidaten kasualitatea "bai, zure zapatilak ezingo dute erakusketan egon, enpresak ez du onartzen eta". Jode, ia 900 urte pasa dira Parisko airea enbotellatu zutenetik eta oraindik honela. 100 urte pasa dira dadaistek tirokatu gintuztenetik eta ulertzekoa da hainbeste denboran airean datorren bala honek hasieran zuen indarra galtzea; ja ez da inor hiltzeko gai. Klik erori da jubilaturen baten oinetan. (txaloak).

Beste alde batetik pentsatzen ari naiz ez ote zuten hasiera hartan ere tiroa hutsegin, eta akabatu behar zuten hura ez ote dagoen oraindik bizi-bizirik (prejuizioak edo askatasuna eragotzen duen edozein muga).

Hau egun bat izan zen Zarauzko Olerti-Etxeak antolatutako antzerki batean. Pare bat aste beranduago berriro joan ginen Sanz-Eneara "Nazioarteko poesia experimental jaialdia" izeneko erakusketa

ikustera. Ekimen honek erantzun oso ona izan zuen partehartzaile aldetik, eta mundu guztiak jaso zituzten sormen lan ezberdinak (Kanada, EEBB, Japon,...). Nire ustez proiektua handiegi bilakatu zitzairen eta eskuetatik ihes egin zien: erakustaretoa ez zen egokiena, antolaketa kaotikoa zuen eta lan pilaketa handiegia zegoen. Mineral erakusketa batean geundela zirudien.

Ikusi genituen lan gehienak mende hasieran futuristek eta dadaistek irekitako bideari jarraitzen zioten, arte plastiko eta literaturaren bidegurutzean. Kasu hauetan **TAMAINAK** garrantzia du, baita **egoera bakoitzean aukeratzen den letra tipoak ere**, espazioaren antolaketa, etab, gehienbat poemen konposizioa alderdi plastikoari eta esanahiari begira moldatzen dira.

Esperimentu hauetako asko nahiko zaharkituak daude eta agian benetan geuden mineral eta fosil erakusketa batean. Alaba, begira, malakita!

Bazeuden gaurregungo teknika eta euskarri berriagoetan oinarritutako lanak ere: video, CD, CD ROM, etab. Guzti hauen artean hiru egile zumaier ere aukeratuak izan ziren: Aran Santamaria, Jon Garate eta ni.

Horma batean Aranen mundu pertsonalean errepikatzen diren elementuak

ezagutu genituen: etxeak, lainoak, kea, euria,... isilak, hitzik gabeko poemak, irudiak. Haurtzar imaginario batetara garamatzaten eskultura poetikoak, etxeak alaiak dirudite baina barrua bestelako izan daiteke, malkoz beteriko botilatxoak gorde ditzakete.

Nire lana "Komunikazioa-inkomunikazioa. Telefono dei bat Mikel Laboari" zen. Eguerdi batean Laboari deitu eta berekin izandako elkarriketaren grabazioa zen. Mikelek landutako Lekeitioei omenaldi moduan eginga eta errealtatea eta fikzioaren mugetan.

Jon Garateren lanak ere muga hauek aztertzen zituela esan daiteke, artea eta bizitza errealearen artekoak alegia. Askatasun artistikoa babesten duen gizarte batean, gizarte honek berak ezarritako mugekin topo egiten duenean gertatzen dena. Eta gertatzen dena zera da, Jon Garatek eta Igor Aristegik abuztuan eginiko akzio artistikoa dela eta, Donostiako epaitegitik deitu dituztela urtarrilerako. Akzioa Kontxako barandila zati bat horiz margotzean zetzan. Norberak pentsa dezala hori egitea zilegi den ala ez, kontua da orain barandilarena artea bazen, ea juizioak ere arte ekintza izaten jarraitzen duen ala ez. Bada-ezpada ere lima bat barruan duen ogia egiten hasi beharko dugu, baina hau ere objektu artistiko bezala, noski.

◀ JON MANTZISIDOR

Tel. 143278



KERASTASE
PARIS

Maite
ileapaindegia

ile-apaindegia



kiromasajeak
tatuajeak
makilajeak

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3. blokea
RPS: 034/97 Tel. 943 86 16 91

ILE APAINDEGIA

herea
U **ranga**

Etkezaretza, 19 Tel. 862342

OSA
BARNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 861412

¿Dendari jauna...

... aizu, dendari jauna, nire seme-alabei ze disko erregalatuko diet Gabon hauetan?

Behin baino gehiagotan entzungo zuten galdera hau disko dendetako langileek. Langileek noski urtero modu berdinean erantzuten dute:

- Eta zure seme-alabei ze musika gustatzen zaie?

Gurasoek minutu erdi batean pentsatzen egon ondoren, zera erantzuten dute:

- Ez dakit zer den, baina zarata handia ateratzen du.

Disko dendetako langileek kaxoia ireki eta Gabon garaian arrakasta handia duten ohizko diskoak ateratzen dituzte: Bombazo Mix, Bolero Mix, Max Mix eta Auskalo-Zer Mix. Horiekin batera Ricky Martin, Enrique Iglesias eta La Oreja de Van Gogh-en diskoak ere mahai gainean jarriko ditu, eta ez dira urruti ibiliko 40 Nazkagarrietan entzun daitezken kanta goragale-sortzaileak ere.

Ez, guraso agurgarriak, ez. Ez zaitezte erori dendariaren probokazio horietan. Zeure seme-alabak ez badituzu ikusi nahi kalean lerdo



moduan mugitzen, orrazkera inuzenteak buru gainean dituztela eta ogi handi baten tamainoko zapatila batzuk soinean dituztela, erosi ezaiozue musika ona, erosi eta hamar urteetara musika katean jarri eta oraindik ere freskoa mantentzen den musika. Eta galdetuko duzue, ze diskotan entzun daiteke hain musika zirrargarria? Ba ez dut ideiarik, baina ziur nago ez dudala aurkituko hor goian aipatutako zabor ontzi horietan.

Zer erosi Gabon hauetan... Adibidez, orain urte bete justu aipatutako disko zoragarri bat. Buena Vista Social Club. Disko bikaina, inoiz freskotasuna galtzen ez duena, eta Kubako musikaren erakustaldi bat dena. Euskal musikan zer? Glups! Hau idazten duenaren ustez, euskal musika azken urte hauetan behintzat nahiko egoera txarrean dago, baina zerbait aipatzekotan, Basque Dub Diaspora

disko kolektiboa gomendatuko nuke. Gomendatzea beharrik ez duen euskal disko batzuk badaude ziur aski garai hauetan txurroak bezala salduko direnak: Su Ta Gar, Fermin Muguruza, etab., baina gomendatu beharrik ez dutenez, a otra cosa!

Askotan opariak egiteko diskorik onenak ez dira aurkitzen "novedades" sailean "medios precios"-eko kaxoietan baizik. Hor begiratu eta izugarrizko altxorak aurki daitezke: klasikoetan klasikoenak (Bob Dylan, Van Morrison, Otis Redding, Marvin Gaye,...), kultozko artistak (Luis Cobos, Julio Iglesias, Raphael...), eta batzutan urte mordo batean deskatalogatuta egon diren diskak eta orain prezio merkean aurki daitezkenak. Eta sail horretatik doa nire rekomendaziya. Erosi zeuen haurrei Ramones taldearen lehen lau diskoak. Lehen aldia da (hala uste dut behintzat) disko hauek konpaktuan eta prezio nahiko onean salgai jartzen direla. Eta zer esango dugu Ramonesi buruz, ba Ramones direla. Bi minututako kanta azkarrak, zaratatsuak eta melodia bikaineak. Badakit aldizkari honetako musikako kolaboratzaile batek ederrak botako dizkidala, zaharkitua nagoela eta, baina hau gomendatuta lasai geratu naiz.

Hala, Gabonak ondo pasa eta erosi, erosi, konsumitu! **J.L. ROMATET**

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

Rosi

garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

BELARDENDA
SIWA



Izaga Garcia
DIETISTA

Esther Blanco

OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012



Itsasoa oldartzen denean ez dago geldiraziko duen oztoporik. Abenduko lehen egunetan olatuak barra berriaren gainetik salto egiten ikusi ditugu. Barra zaharrak ere hamaika enbata jasan behar izan zituen. Ikuskizun paregabea.


SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416

gidatzeko baimen guztiak



INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

TALAI-MENDI
DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ENKARGUAK: Juan Belmonte, 35
Tel. 929-550574



ERRIBERA 10
TEL: 943 86 21 14

liburuak
aldizkariak
CDak
komikiak
eta
fantzineak



Ixtera goaz
likidazioa

ILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe, 7
Tel. 143191

motxian hi!



zein: Chuck Norris

zer: Walker Texas Ranger

nola: Chucky

Bruce Lee-rekin eta Vietnaren burruka egin ondoren orain Texas Ranger bat zara.

Bai, baina konturatuko zinen beti ere amerikar espiritua mantendu dudala. Haseran txino zikin horien kontra egiten nuen burruka, ahal nituen gehienak akatuz. Orain, aldiz, beltzak eta mexikarrak dira nire etsaiak... denak komunista hutsak.

Zaila al da Texas Ranger baten lana?

Bai, baina ez dit axola. Nik nire barnean amerikar espiritua dut eta horrek asko laguntzen dit. Goizero, jaiki eta Estatu Batuetako banderari musu ematen diot. Horrek indarberritu egiten nau eta beltz, homosexual eta mexikarren aurka lan egiten laguntzen dit... denak komunista hutsak direnak.

Beltzak eta mexikarrak etsaiak badituzu ere, zuriak ere ez dira lagun oso onak, bati ere jipoi bat emateko asmoa izaten baitute.

Je, je, je. Mozolo horiek ez dira konturatzen ni Texas Ranger bat naizela, amerikar arranoaren begirada zorrotza dudala. Bai, plastateko pare bat ematen dizkiegu elkarrei, baina gero zerbeza batzuk hartzera joaten gara ondoko tabernara. Noski, han beltz, homosexual, mexikar edo drogadikto bat aurkitzen badugu, paliza eder bat ematen diegu, haiek ez baitute Amerikan sinesten, komunista hutsak baitira.

Beltzen aurka bazaude ere, zure lankidea Ranger Tribette beltza da.

Bai, beltza da, baina ez da beltza. Ea nola esaten dizudan. Kolorez beltza da, baina espirituz amerikar peto-petoa. Gainera goizean behin dutxatzen da, eta beltzek duten usain hori ez zaio asko nabaritzen. Beltz, homosexual, mexikar, drogadikto eta txinosen aurka ere lan asko egiten du. Ezin esan asko apreziatzen dudarik, baina gauza bat ziur dago, ez da komunista bat.

oharrak

Astegunetan goizeko 8:30etarako Ibaetara (Donostia) joaten bazara eta nerekin kotxeko gastuak konpartitu nahi badituzu deitu iezaadazu: 943 86 12 24

ADI TXISTULARI!!
Herrietako kalentoiak alaitzeko asmoz, hautsez betetako TXISTU, DANBOLIN eta ATABALAK erosiko genituzke MODU ONEAN!
Deitu bildurripe 943 13 26 48 telefonora (Pello)

ttikittaka
haur
oinetakoak
BALTASAR ETXABE 2/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.200 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40
Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiroi zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak.
Balazoiak
Nekazaritza Injineru Teknikoak

Ur-gintza

SANEAMENDUA - KALEFAKIZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g Tel. 148082
20740 IRAETA - ZESTOA Faxa: 148124
78 postakutxa

ARROZTEGIA

Urola 2000, s.l.

*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
*Armairu enpotratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

TXOKO
B
E
R
N
A

Artadi auzoa
Tel. 862189

Agustin harakinaren eskutik:
HARATEGI BERRIA

BARGUREN

ALAI AUZATEGIA, 12 TEL: 943 860 258

**Bertan
aurkituko dituzu:**

- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Txarkuteria bikaina
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

Hasieran eskaintza bereziak
Gabonetako zozketak:

koloretako telebista bat

Otar eder bat



Gabon zoriontsuak eta Urte berri on!

Zuen bisitaren zain gaituzue. Eskerrik asko zuen konfiantzagatik

KOSTA



GAS C.B.

REPSOL

BUTANO

ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatuz eta galdetu

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO



Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA